

Ihesi

AIALA ELORZA

Amurrio (Araba)



Gizakien aztarnak Gorbeiaaren atarian

Garrastatxuko Naturbidea 2005. urtean zabaldu zen, etxekoei zein bisitariei Amurrioko inguruak erakusteko helburuarekin. Baranbio aldeko txango honek hamabost kilometroko ibilbidea burutzeko aukera eskaintzen digu, Garrastatxuko baselizaren inguruetan eta Gorbeia Parke Naturalean barrena.

Garrastatxuko Andra Mari Errukizkoaren baseliza 1626. urtean eraiki zuten. Zaharra da beraz, hari atxikita dagoen zezen plaza bezala, Arabako zaharrena baita. Barruan XVII. mendeko Andra Maria Errukizkoaren tailu bikaina dago, txurrigereskoa. Kanpoan aterpea, asteburuetan irekita egon ohi dena eta enkargatuz gero bazkariak prestatzen dituen.

Baranbio herritik bi kilometro eta erdira dago Garrastatxu, 600 metroko altueran. Behatoki eder honetatik Gorbeia, Altube eta Orozkoko mendiak ikusten dira, baita Salbada mendilerroa ere. Gure ibilbidearen zehaztasunen berri ematen duten paneletako lehenengoa aurkituko dugu hemen.

Baselizaren eskuinean, harrizko harresi baten alboan, ibilbidearen

hasiera erakusten duen haga dago. Lizar artean jaisten hasi eta luze gabe, hainbat harrobi eta errota-rriren aztarnak aurkituko ditugu. Bide erdian dagoen informazio-panel batek emango dizkigu harrobi horietan egiten zen lanari buruzko azalpenak.

Gailur-lerroan aurrera, gaztainondo eta haritzek inguratzen gaituztela, artalderen batekin topo



Lerro hauen gainean ageri den ikuspegia gozatu daiteke Garrastatxu inguruetan. Aurreko orrialdeko argazkian Garrastatxu baseliza ikus dezakezue; haren aurreko eremua, harrizko hesi batez inguratuta dagoena, Arabako zezen plazarik zaharrena da.

egin genezake. Azkenean Artabila baserritik datorren bidera helduko gara. Ezkerrera egingo dugu orduan, hurrengo haga ikusi arte.

Fauna zein industriaren aztarnak

200 metroko jaitsiera egingo dugu naturak berak sortutako eskaileretatik. Lurzoruari erreparatuz gero animalien arrasto ugari antzemango ditugu, inguruetako fauna aberatsaren erakusgarri: oreinak, basurdeak eta basakatuak bizi dira inguruotan, besteak beste. Gizakiek ere ez dute gutxitan zapaldu lur hau: bidean aurreraxeago, haien jardueraren gaineko beste panel bat aurkituko dugu. Gaztaina-hobi –kirikiñousi izena ere badute– eta meatze-ahoez mintzatuko zaigu ibilbideko hirugarren errotilu hau. Une batez gure bidetik irten eta ehun metro ibiliz gero, panelak dioena geure begiz ikusteko aukera izango dugu gainera: gaztaina-hobi ederra eta meatze-ahoa, hauek benetakoak.

Ostera gure bidera itzulita, haren paralelo doan lurrezko pista ikusiko dugu ezkerrean; horretatik joango gara aurrerantzean, haritz artean gorantz, ibilbidearen laugarren mugarrira heldu arte. Antzinako goldeen eta gaztaina-hobi gehiagoren arrastoak ikusiko ditugu, baita biodibertsitatearen ikus-

puntutik interes handia daukaten gaztainondoak ere. Azkenik, gora iristean, Garrastatxuko baseliza agertuko zaigu berriz bistara, ezkerreko aldean.

Hemendik aurrera leunagoa izango da bidea. Pikaza baserritik behera lehenengo pagoak ikusiko ditugu, Pagasaun errekaaren haranean. Ezkerrera joanda, pagoek Garateko bidea erakutsiko digute. Gune honetan aukera bi ditugu; lehena, eskuineko pistatik txangoa jarraitu; bigarrena, Pikaza baserritik abiatuta Garrastatxura bueltatu eta ibilbidea bukatutzat ematea.

Gorbeia Parke Naturalaren atean

Txangoa jarraituz gero, Gorbeia Parke Naturalaren atarira helduko gara. 8 zenbakidun hagak adierazten duen bidetik abiatuta, pago artean, ur-jauzi txikiak eta erlategiak ikusiko ditugu. Aurrerago, ur-jauzi indartsu batek sortutako erreka toa zeharkatuko dugu, Domaikorta iturrira heldu arte. Burdina-ura dario Domaikortari.

Ehun urteko pagadi zoragarritik gora, eskuinetik datorren bideari jarraitu eta Otegiko Txabolaren aztarnetara helduko gara. Ur-arroak banatzen dituen lerrotik, Bihozbizkar mugarritik eta

Gainbideta lautadatik joanda, ibilbideko altuera handienara ailegatuko gara: 917 metro. Hemen, errotilu batek Nafarkorta tontorrera (1.017 m) heltzeko azalpenak emango dizkigu. Gu, ordea, hurrengo abiapunturantz hasiko gara jaisten, eskuineko ur baltsari jarraituz.

12. hagan, berriro ere, aukera bi ditugu: batetik, 7. abiapunturantz joan eta Garrastatxura itzultzea; bestetik, gure eskuinean dauden seinaleei jarraituz bidean aurrera egitea, Arlamendi baso-mintegirantz. Bidean, panel batek baso-gintzaz zerbait esplikatu digu, eta inguruan antzinako mintegi bat eta harrobi bat aurkituko ditugu, biak Bizkaiko mugan.

Mintegia ezkerreko aldean utzi eta harriz beteriko bidetik jaisten hasiko gara, Anzulueta errekaarekin topo egin arte. Hemen 7-15 haga bikoitza ikusiko dugu, Gorbeia Parke Naturalaren irteera erakusten diguna. Gorostien artean, eskuine-rantz igo eta ur-biltegitik igarota, Katzabaso tontorrean izango gara. Azkenik, begiak Katzabasoko ikuspegi ederrekin ase ondoren, gailurraren kontrako isurialdetik behera egingo dugu. Gutxi falta zaigu Garrastatxura itzuli eta ibilbideari amaiera emateko. ■